



D ERANSKINA

Praktika-aldia egin behar duten lagunak (EPE)

D.1.- Prozesuan eskainitako lanpostuen zerrenda

Esleituko diren lanpostuen zerrenda 2019ko abuztuaren 8ko 14:00etan emango da argitara Hezkuntza Sailaren web-orrian (<http://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-saila/>), eta irakaslegunean.

Era berean aditzera emango da zein lanpostutan ezin izango den egin praktika-aldia edo zein lanpostuk dituen ezaugarri bereziak.

D.2.- Parte hartzeko eskabidea betetzeko epea

Irakaslegunean dagoen eskabide elektronikoa betetzeko epea 2019ko abuztuaren 8ko 14:00etan ireki, eta 2019ko abuztuaren 9ko 14:00etan itxiko da.

D.3.- Esleipenaren behin-behineko ebazpena

Esleipenaren behin-behineko ebazpena 2019ko abuztuaren 14ko 12:00etan emango da argitara Hezkuntza Sailaren web-orrian, eta irakaslegunean.

D.4.- Esleipenaren behin-behineko ebazpenaren kontrako erreklamazioak egiteko epea

Esleipenaren behin-behineko ebazpenaren kontrako erreklamazioak egiteko epea 2019ko abuztuaren 14ko 12:00etatik 2019ko abuztuaren 16ko 14:00etara egongo da zabalik.

Erreklamazioa irakaslegunean eskuragarri dagoen ikasturte hasierako aplikazio informatikoan agertzen den loturaren bidez aurkeztu beharko da.

D.5.- Esleipenaren behin betiko ebazpena

Esleipenaren behin betiko ebazpena 2019ko abuztuaren 29eko 14:00etan emango da argitara Hezkuntza Sailaren web-orrian, eta irakaslegunean.